BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2859

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 13koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Desarrollo y Empresa» fundazioaren desegitea eta likidazioa onartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko urriaren 24an, aipatu fundazioaren ordezkari Ignacio Imaz Ocharan jaunak izenpetutako eskari bat sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistroan, «Fundación Desarrollo y Empresa» fundazioaren desegitea inskribatzeko zena. Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, zenbait akats atzeman dituzte, eta 2012ko azaroaren 13ko idazki baten bidez, akats horiek zuzentzeko eskatu da.

Hirugarrena.– 2012ko abenduaren 28an, aurreko eskabidean adierazitako akatsak zuzentze aldera, honako eskritura publiko honen kopia baimendua jaso da Justizia eta Herri Administrazio Sailean: fundazioaren desegiteari dagokion eskritura publikoa, 2012ko abenduaren 12an Ignacio Imaz Ocharan jaunak emana, Bilboko notario Ignacio San Juan Unanueren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.856).

Eskritura publiko horretan jasotzen da, halaber, Getxon, 2012ko urriaren 10ean emandako ziurtagiria, Getxon, 2012ko urriaren 1ean egindako batzarrari buruzkoa. Batzar horretan, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ziren:

– Fundazioa desegiteko erabakia, ezarritako helburuak bete dituelako.

– Likidazioaren balantzea eta fundazioaren ondasun-gerakina likidatzeko programa onartzea.

– Jarduketa-programa onartzea.

– Gelditzen den likidoa banatzeko proiektua onartzea.

Laugarrena.– 2013ko maiatzaren 6an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean sartu dira fundazioaren likidazioaren ondoriozko gerakinaren destinoari buruzko ziurtagiriak.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea eta, ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia

Erkidegoko Fundazioen Legearen 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak abenduaren 15ean Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 20/2012 Dekretuaren 6.1.r) artikuluan.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioak bete egiten du honako xedapen hauetan ezarritakoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Hirugarrena.– Legitimatuta dagoen pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, beraz, bete dira honako xedapen hauetan ezarritako betekizunak: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 33. eta 34. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 35. artikuluan, eta, ondarea azkentzeari eta likidatzeari dagokionez, fundazioaren estatutuetan jasotakoak.

Laugarrena.– Fundazioen Babeslaritzak onartzeko eta Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agirietan ikusten denez, Fundazioaren Patronatuak 2012ko urriaren 1ean fundazioa desegiteko hartutako erabakia baliozkoa da, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioei buruz indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera. Agiri horietan, bestalde, behar bezala jasota dago bete egin direla fundazioak ezarritako helburuak, eta horixe izan da, hain zuzen ere, fundazioa desegiteko arrazoia.

Patronatuak fundazioa desegiteko hartutako erabakiaren ondorioz, Amsudan eta Caritas-i entregatuko zaizkio fundazioaren ondare-gerakina osatzen duten ondasun guztiak.

Ondarearen destino hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 35.2 artikuluarekin.

Bosgarrena.– 100/2007 Dekretuko 36. artikuluak xedatzen duenez, desegiteko erabakiak edo, hala badagokio, fundazioaren ohiko jarduerak amaitutzat jotzen dituen ebazpen judizialak, hasiera emango die likidatzeko eragiketei.

Fundazioko gobernu-organoak egingo du desegindako fundazioaren likidazioa, betiere Babeslaritzaren kontrolpean. Horretarako, fundazioaren gobernu-organoak aktibo- edo likidazio-eragiketa bakoitzaren berri emango dio Babeslaritzari.

100/2007 Dekretuko 36.6 artikuluak ezartzen du zein elementu izan behar dituen Fundazioa likidatzeko eskritura publikoak.

Aipatutako manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baietsi egiten da, batetik, Fundación Desarrollo y Empresa fundazioaren Patronatuaren erabakia, eta, bestetik, 2012ko urriaren 10eko ziurtagirian jasotako likidazioaren ondoriozko likidoaren destinoa. Erabaki hori publiko egin da 2012ko abenduaren 12an, Bilboko notario

Jaime Fernández Ostolazaren aurrean baimendutako notariotza-eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 1.856).

Bigarrena.– Fundazioa desegiteko erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 13a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.